

ABERRI EGUNA 2003



EUSKALDUNAK GARELAKO

Gaur, apirilak 20, Aberri Eguna ospatzen dugu, UDALBILTZA[®]ren inguruan zazpi euskal herrialdeko udal hautetsiek, gure herriaren eguna bakez eta elkarrekin. Gure izaera aldarrikatzea eta baieztatzea, eta gure borondatea Herri bat izaten jarraitzea dela adieraztea dira gure helburuak.

Hendaian gaude, 1901. urtean Euskaltzaleen Biltzarraren sorrera oroitarazten duen plaka ondoan. Ekimen honen bidez, omenaldi xume baina bihotzekoa eskaini nahi diegu, urte hartan eta etxe honetan bertan, euskarari -gure hizkuntza zaharra, euskaldun guztien ondare eta Europako altxor kulturala- bere etorkizuna bermatzeko oinarri linguistiko egokiak eskaintzeko kezkatuak bildu ziren, euskaltzale eta euskal kultura-gizonei. Ikuspegi eta oinarri sendoak zituzten pertsona jakitsuak ziren; beren Herriaren eta haren nortasunaren maitaleak, pertsona zintzoak; Adema kolonjea, Arturo Kanpion, Sabino Arana Goiri, Resurrección Maria de Azkue, Guerra, Broussain, Guilbeau eta Arbelbide, besteak beste. Batzuk Iparraldekoak, beste batzuk Hegoaldekoak, Euskal Herriaren lurraldetasunaren ispilu izanen zen erakundea sortu zuten lehen aldiz. UDALBILTZA[®]k ere, Euskal Herriaren lurraldetasunaren ispilu eta lekukoa, Herri bereko partaide eta aldi berean elkarren osagarri izatearen sentimendua sortzea baitu helburu.

Gerra eta inbasio garaietan bizi gara, bake nahiak eta eskakizunak errebindikazioaren eremuan kokatzen diren garaietan, soil-soilik interes geo-estrategiko eta ekonomikoek bultzatuta, beren nazioarteko orden berezia inposatu nahi duten munduko estatu eta buruzagiek.

Oro bat Europan murgilduak bizi gara, baina hura sustapenaren, zalantzaren eta atzerakaden artean eraikitzen ari da, sabotaje politikoak ahortzi gabe. Gauzak horrela izanik, galdetu beharrean gaude pertsonen eta herrien eskubideak zertan geratzen ari diren. 2001eko irailaren 11tik aurrera, New Yorkeko Dorre Bikietako atentatuaren ondoren Estatu Batuetako buruzagiek eta europar batzuek ere, hala nola, Blair eta Aznar, erabaki dute gatazkak moldatzeko legaltasunari gorrarena egitea, indarkeriaren eta indar militarren arauak inposatuz.

Euskaldunak gara. Herri bat gara Pirinioetako bi aldeetan ezarria, Estatu frantziarrak eta espainiarrak ukatzen badigute ere gure izaera, gure hedadura eta gure proiektzioa; ez baitute berena ez den errealitaterik onartzen.

Aberri Egunaren ospakizunean, euskal zazpi herrialdeetatik lautan ospatuko diren hauteskundeetan bezperan gaude; beraz, gogor salatu beharrean gaude gure Herriko zati garrantzitsu baten ordezkartza benetakoaren galarazpen politiko eta judiziala. Estatu espainiarra, bere erakunde guztien ekimen adostuen bidez, saiatzen ari da irtenbide politiko eta demokratiko behar duen gatazka politikoa luzatzen. Ideiak eta oinarrizko eskubide politikoak debekatu eta murrizten dituzte, euskal presoek eta beren familiaren egoera gogortzen dute edo euskara edo Euskal Herri osoa egiten den edozein proiekturen kontra jotzen dute. Beste batzuek, berriz, mehatxu egiten dute eta haiek bezala pentsatzen ez dutelako edo beren iritzia ezberdinak direlako bizia eta askatasuna bezalako oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen dituzte.

Bere buruari ezker abertzale esaten dionak, behin betiko erabaki politiko eta estrategikoei ekin ordez, aski du "nahi izatea eta errebindikatzea", jakin gabe zer de "arriskatzea zerbait edukitzeko". Gure iritziz, mamiari nahita ihes egitea da legez baliogabetzat hartuko diren botoen proiektzioa hautetsietan extrapolatze nahikeria.

Hain arrotz baldin badute bide bortitza erabilpenaren gaineko eztabaida eta horren ondoriozko posizionamentua, benetako aterabideren bila bagaude, ona litzateke, ondorio praktikoei begira baizik ez bada ere, galdera hauek beren buruari egitea eta erantzuten saiatzea: Zeintzuk dira ETAREN biolentziaren ondorio politikoak? Objektiboki nori egiten dio mesede ETAREN estrategia bortitzak? Euskal Herriari, euskal abertzaletasunari, ezker abertzaleari, irtenbide politikoei?

Aberri Eguna ospatzen dugu abertzaleak garelako, baina bereziki eta oroz gain euskaldunak garelako. Herri bateko partaide sentitzen gara, haren izatea aldarrikatzen dugu, subiranotasun osoa lortzeko eskubidea, haren hizkuntza babesteko eta indartzeko betebeharra eta haren lurraldetasuna erdiestea.

Horra gure helburuak, horra bidegabekeria historikoa berdintzeko bidea, horra adierazpen demokratiko hutsa. Baina xede horiek aldarrikatzeaz gain, hurrengo garaietan lan egiteko oinarriak eta gakoak proposatu beharrean gaude. Hona hemen:

- Gerra, biolentzia eta inposaketa garaietan, soil-soilik bide, baketsu eta demokratikoen aldeko apustu behin betikoa. Bakea eta errespetua pertsona guztien eskubide oinarrizkoei.
-
- Ideia eta erakunde politikoen legezkotasun eta legitimitatea.
- Autodeterminazio eskubidea Euskal Herriarentzat. Euskal nazio eraikuntza eta kontzientzia.
- Euskal lurraldetasun elkarkoia.

Euskaldun sentitzen diren guztientzat da gure deia. Itxaropen faltsurik gabe, baina aldi berean konplexurik batere gabe. Ahalegin guztiak eginen ditugu gure dena gauzatzen. Euskaldunak garelako, euskaldunak baizik ez.

GORA EUSKADI ASKATUTA!

Euskal Herria, 2003ko apirilaren 20an